

PLATAFORMA BAKAR motak Irisgarritasun baldintzak



ZUZENDARITZA NAGUSIA

Autonomia Pertsonaleko, Teknologiako
eta Irisgarritasuneko Zuzendaritza

PLATAFORMA BAKAR

motak

Irisgarritasun baldintzak

EDIZIOA:



ZUZENDARITZA NAGUSIA

Autonomia Pertsonaleko, Teknologiako
eta Irisgarritasuneko Zuzendaritza

© Edizio honena: Autonomia Pertsonaleko, Teknologiako eta Irisgarritasuneko Zuzendaritza
Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala (ONCE)
ONCEren Zuzendaritza Nagusia
Prado kalea, 24 28014 Madril
© Organización Nacional de Ciegos Españoles, 2024
Informazio eta Irisgarritasun Unitatea

KOORDINAZIO TEKNIKOA

María Concepción Blocona Santos eta David Reyes Llaveró
(Birgaitze teknikariak eta Autonomia Pertsonalerako, Teknologiarako eta Irisgarritasunerako Zuzendaritzaren aholkulariak).

Dokumentu hau ONCEren Birgaitze teknikarien taldeak prestatu eta idatzi du.

Concepción Blocona Santos
(Madrilgo Lurralde Ordezkaritza)

Juan José Cantalejo Cano
(Madrilgo Lurralde Ordezkaritza)

María Teresa Fernández García
(Andaluziako Lurralde Ordezkaritza)

Yolanda Fernández De Landa Insagurbe
(Kataluniako Lurralde Ordezkaritza)

Manuel Antonio Martín Salinas
(Aragoiko Lurralde Ordezkaritza)

David Reyes Llaveró
(Andaluziako Lurralde Ordezkaritza)

Rosario Rodríguez de Luengo
(Valentziako Lurralde Ordezkaritza)

Carmen Laura Salvador Esteban
(Galiziako Lurralde Ordezkaritza)

EDIZIO GRAFIKOA ETA EDITORIALA

Rosa Fernández Jiménez
Luis Palomares Nájeren koordinaziopean

AURKIBIDEA

1	Sarrera	5
2	Plataforma bakarrak	7
	2.1. Definizioa	7
	2.2. Plataforma bakar motak.....	7
3	Ezarpenerako aurretiazko baldintzak	8
4	Dagoen arazoaren definizioa	10
5	Igarotze partekatuko plataforma bakarrak. Diseinu eta erabilera irizpideak	12
	5.1. Oinezkoen lehentasuna	12
	5.2. Eremuaren antolaketa.....	12
	5.3. Garraio kolektibo mugatua.....	13
	5.4. Baimendutako ibilgailuak	14
	5.5. Zoladurak.....	15
	5.6. Segurtasun handiagoko eremua diseinatzea.....	17
	5.7. Beste mota bateko bideekin gurutzatzea.....	25
	5.8. Igarotze partekatuko Plataforma Bakarretako praktika txarren adibideak.....	28
6	Igarotze bereiziko plataforma bakarrak. Diseinu eta erabilera irizpideak	32
	6.1. Oinezkoen eta ibilgailuen eremua identifikatzea	32
	6.2. Bi eremuak mugatzea	34
	6.3. Bidegurutzeak.....	35
	6.4. Seinaleztapen-sistema homologatua.....	37
	 Bibliografia	 40



SARRERA


2017ko "PLATAFORMA BAKARRAK. ONCEren irizpideak"¹ dokumentua argitaratzea une hartan ezartzen ari ziren plataformen diseinuaren inguruan ONCEren profesionalak gauzatutako ikerketa baten emaitza izan zen. Bertan, plataforma bakarrak justifikaziorik gabe ezartzetik eratorritako arazoak azaltzen ziren, eta diseinu horientzako adostutako irtenbideak argi proposatu ziren. Horrekin irizpideak bateratu ziren eta administrazio desberdinetako teknikariei erantzun homoginoa eman ahal izan zitzairen, batez ere udaletakoei, baita irisgarritasunaren aldeko beste profesional batzuei ere.

Aipatutako dokumentuak ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen lekualdaketen ezaugarriei buruzko edukiak aipatzen zituen eta plataforma bakarrak ezartzeko baldintzak jorratzen ziren, baita espazio horien segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko zeuden hainbat arazo konpontzeko alternatibak ere eta, bereziki, ikusmen-arazo larriak dituztenentzat.

Denbora pasatu ahala, plataforma bakarreko guneen hedapenak diseinu ugari ekarri ditu; hiriko eremu berrietan ere ezarri dira, baita hainbat eremu publikotarako irtenbide gisa ere, etxadi handietan edo uharte handietan, esaterako. Oinezkoen eta ibilgailuen igarotze-eremuak eta beren artean finkatutako erlazioak gero eta anbiguoagoak eta zehaztugabeagoak dira, eta, praktikan, ikusmen-desgaitasuna duten oinezkoen segurtasunaren eta orientazioaren arazoek bere horretan jarraitzea edo haztea dakarte.

1 PLATAFORMA BAKARRAK. ONCEren irizpideak. https://portal.once.es/bibliotecas/fondo-bibliografico-discapacidad-visual/plataformas-unicas-criterios-once/Plataformas%20Unicas%20%20Criterios%20ONCE.pdf/at_download/file





Bestalde, gaur egungo legeriaren arabera, VIV/561/2010 agindua atzean uzten duen TMA/851/2021² agindua onartzeak plataforma bakar hauen diseinuaren ikuspegi zabalagoa dakar. "Irigarritasun gidak"³, arau berriaren alderdi zehatzak garatzen eta argitzen dituen dokumentu gisa, espazio horien sailkapen berritzailea biltzen du, "igarotze partekatuko espazio" deiturikoak eta "oinezkoen eta ibilgailuen igarotzea bereizita dutenak". Horri dagokionez, "plataforma bakarreko igarotze partekatuko eta argi eta garbi oinezkoenak diren espazioen arteko praktika-desberdintasunak azpimarratzea komeni da, bereizteko zailak dira eta, beharbada, bidearen zabaltasunaren inplementazio-baldintzen arabera, batzuei eta besteei esleitutako erabilerengatik edo horietan zirkula dezaketen ibilgailuen tipologiaren arabera nabari daitezke soilik.

Horrek guztiak "PLATAFORMA BAKARRAK. ONCEren irizpideak" dokumentua berrikustera gonbidatzen gaitu, egungo baldintzetara eta araudi berrira egokitutako jarraibideak emateko, eta era berean, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak segurtasunez lekualdatzeko gomendio espezifikoak egiteko.

-
- 2 TMA/851/2021 Agindua. <https://www.boe.es/boe/dias/2021/02/06/pdfs/BOE-A-2021-1751.pdf>
 - 3 Irigarritasun Gida (31-34. or.) https://cdn.mitma.gob.es/portal-web-drupal/estudios_y_publicaciones/guia_accesibilidad.pdf



PLATAFORMA BAKARRAK

2.1. Definizioa

Oinezkoak eta ibilgailuak maila desberdintasunik gabe partekatzen duten hiri-espazioa.

2.2. Plataforma bakar motak

Igarotze partekatuko plataforma bakarrak

Oinezkoek eta ibilgailuek espazio bera partekatzen eta hartzen duten plataforma, oinezkoek lehentasuna izanik.

Igarotze bereiziko plataforma bakarrak

Oinezkoek eta ibilgailuek espazio desberdinak hartzen dituzten plataforma, espaloia eta galtzada bereizten dituzten elementuekin, nahiz eta zintarririk ez egon. Orokorrean, ibilgailuen igarotze-gunea plataformaren erdigunean egoten da.



EZARPENERAKO AURRETIAZKO BALDINTZAK

Partekatzea ziurtatzen duen mugikortasun-azterketa izan beharko dute eta pertsona guztien irisgarritasuna eta segurtasuna posible egiteko dokumentu honetan zehaztutako baldintzak betetzen direla teknikoki bermatuko da.

Plataforma bakarra irtenbide egokia izango da bide baten zabaleragatik edo morfologia-baldintzengatik ibilgailuen eta oinezkoen bideak maila desberdinetan bereizi ezin direnean. **Horrela ez bada, galtzada eta espaloia zintarriaren bidez bereizteari eutsiko zaio.**



- 1. irudia.** PB ezartzea justifika daitekeen kalea, oinezkoentzako espaloia estuak eta igaroezinak baititu.





2. irudia. Kale estu bateko plataforma bakarra ezartzeko irtenbide egokia.



DAGOEN ARAZOAREN DEFINIZIOA

Bete beharreko egungo araudian finkatutako igarotze partekatuko plataforma bakarren eta oinezkoen eta ibilgailuen igarotzea bereizten duten plataformen bereizketa praktikan ez da osatzen gidariari eta oinezkoari plataformen tipologia eta izaera argi bereizteko aukera ematen dieten diseinu-elementuak gehituta.

Horrela, pertsona guztientzako nahasketa-, desorientazio- eta arrisku-egoerak sortzen dira eta, batez ere, ikusmen-desgaitasuna duten horientzat.

Beste alde batetik, bideen zabalera eta igarotzen diren ibilgailuak eta haien tipologia kontuan izan gabe (ohiko bidea ezartzea komenigarria izango litzatekeen kasuak barne) plataforma bakarrak arrazoirik gabe eta justifikaziorik gabe erabiltzeak eta ezartzeak oinezkoentzako arrisku-egoerak ekartzen ditu eta eraginkorra ez den erabilera bultzatzen du.

Hurrengo irudiek (3, 4 eta 5) erakusten dute plataforma bakarra ezartzea ez dagoela justifikatuta, partekatua edo bereizia den jakitea ezinezkoa baita.



3. irudia.





4. irudia.



5. irudia.



IGAROTZE PARTEKATUKO PLATAFORMA BAKARRAK. DISEINU ETA ERABILERA IRIZPIDEAK

5.1. Oinezkoen lehenetasuna

Oinezkoek lehenetasuna izango dute plataforma guztian.

5.2. Eremuaren antolaketa

Bertan dauden espazioek erabilera desberdinak argi eta garbi bereizten dituzten eran ordenatuta egon beharko dute, altzariak era uniformearen egongo dira eta ibilgailuak gelditzeko eremu espezifikoak (zamananak, baimendutako ibilgailuak, etab.).



6. irudia. Zoladura homogeneoaren diseinua eta altzariak ordenatuta.



5.3. Garraio kolektibo mugatua

Ez da igaroko garraio kolektiborik.



7. irudia. Garraio kolektiboaren eta oinezkoen bizikidetzak arrisku-egoera larriak sortzen ditu.



5.4. Baimendutako ibilgailuak

Indarrean dagoen araudiaren arabera finkatutako murriztapenen arabera baimendutako ibilgailuak bakarrik ibiliko dira. Bizikletak, mugikortasun pertsonalerako ibilgailuak edo antzekoak murriztapen horietan jasoko dira.



8. irudia. Bizikletek eta mugikortasun pertsonalerako ibilgailuek beste ibilgailuei aplikatutako murrizketak dituzte.





9. irudia. Bide honetan baimendu gabeko mugikortasun pertsonalerako ibilgailua.

5.5. Zoladurak

Zoladura eta antolaketa bera erabiliko da plataforma bakarraren eremu osoan, ibilgailuen lehentasunezko eremutzat hartzea ekar lezaketen diseinuak edo kokalekuak saihestuta.



10. irudia. Lehentasuna ibilgailuek dutela pentsaraztera garamatzen zoladura-bereizketa.





11. irudia. Lehenetasuna ibilgailuek dutela pentsaraztera garamatzen diseinua.



5.6. Segurtasun handiagoko eremua diseinatzea

Badagoela ziurtatu beharko da hurrengo irizpideak kontuan izanda:


- Bidearen bi alboetan egongo da, eraikin, lorategi edo elementu horizontalen lerrotik gutxienez 1,80 m-ko zabalarekin. Espazio nahikorik ez dagoenean, alboren batean bermatuko da.



12. irudia. Segurtasun handiagoko gunea, bidearen albo bakarrear.



- Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak bereizteko, hauetako batzuk jarriko dira:
 - a. Kanpoaldeko 40 eta 60 cm arteko zabalerako ukipenez eta ikusiz hautemateko oharpenezko zoladura-tartea jartzea, ondoko zoladuraren kolore berekoa.



13. irudia. Ukipenez eta ikusiz hautemateko oharpenezko zoladura-tartea bidearen bi alboetan.



- b. Zoladuran 40 eta 60 cm arteko zabalerako kolore bereko bideraketa-banda (arteka) bat ezartzea, espazio irekietan eta/edo paretaren ondoko segurtasun handiagoko eremua bermatu ezin denetan mugitu ahal izateko.



- 14. irudia.** Fatxadatik hurbil dagoen gune segurua seinaleztatu ezin daitekeenez, artekadun zoladura dago.



- Ukipenez eta ikusiz hautemateko oharpenezko- edo bideraketa-zoladuraren ondokoak testura desberdina izango du oinaren eta makilaren bidez biak argi bereizi ahal izateko.



15. irudia. Oharpenezko zoladuraren eta ondokoaren arteko testura-contraste egokia.



16. irudia. Oharpenezko bideraketaren eta ondokoaren arteko testura-contraste egokia.




- Ezingo dira ukipenez eta ikusiz hautemateko zoladurak hautematea eta/edo jarraitzea galarazten duten elementuak jarri (hiri-altzariak, terrazak, ibilgailuak, etab.).




17. irudia. Hiri-altzariak ukipenez edo ikusiz hautemateko zoladuraren gainean.





18. irudia. Mahaiak ukipenez edo ikusiz hautemateko zoladuraren gainean.



19. irudia. Ibilgailua ukipenez edo ikusiz hautemateko zoladuraren gainean.



- Plataforma Bakarrean zehar segurtasun handiagoko guneen arteko komunikazioa errazteko, fatxada-lerrotik abiatutako norabide-zoladurak jarri ahalko dira. Zoladura-tarte horiek trazadura zuzena izango dute, desorientazioa eragin dezaketen diseinuak ekidingo dira eta altzari-guneak eta beste erabilera eta zerbitzu batzuek erraz okupa ditzaketen eremuak saihestuko dira. Eremu seguruaren eta norabide-eremuaren ohartarazpen-tarteen arteko bidegurutzean ohartarazpen-zoladura mantendu beharko da.



20. irudia. Segurtasun handiagoko bi eremuak komunikatzen dituen norabide-zoladura.



- Kaleen zabalerak segurtasun handiagoko eremua mugatzeko aukerarik ematen ez duenean, ukipenez edo ikusiz hautemateko zoladura jarriko da.



21. irudia. Segurtasun handiagoko eremua mugatu ezin daitekeen kalea.



5.7. Beste mota bateko bideekin gurutzatzea

Gidariak erabilera-baldintzak ulertzea bermatzeko, beste era bateko bide batekin partekatutako plataforma bakarraren bidegurutzetan, hauek jarriko dira:


- Ibilgailuen abiadura murrizten lagunduko duten zoladurako ohartarazpen-elementuak.
- Gidari guztiek plataforma bakarrean sartu direla eta bertan jarraitzen dutela jakiteko aukera ematen duten zoladuren arteko kontraste bisualak.
- Dagozkion mугen seinaleztapen bertikal eta/edo horizontala.



22. irudia. Igarotze partekatuko plataforma bakarraren eta beste mota bateko bidearen arteko bidegurutzeta.



Bide bat plataforma bakar batekin gurutzatzen denean, ukipenez eta ikusiz hautemateko oharpenezko zoladura-zerrenda bat jarriko da, 60 eta 120 cm arteko zabalera, eta, haren kokapena errazteko, ukipenez eta ikusiz hautemateko 80 eta 120 cm arteko zabalera duen norabidea adierazteko zoladura-zerrenda bat jarriko da.



23. irudia. Ukipenez eta ikusiz hautemateko ohartarazpen- eta norabide-zoladuren zabalera





24. irudia. Bidearen erabilera eta mugak identifikatzeko aukera ematen duen seinaletapena.

Aurretik adierazitako irizpideak eta ezarpen-baldintzak diseinuan igarotze partekatuko plataforma bakarrak dituzten kaleak txertatzen dituzten eremuetan bete behar dira, etxadi edo uharte handiak osatzen dituzten horietan.

Alabaina, espazio horien zabalerak, plataforma bakarreko hainbat kale elkartzeak eta antolakuntzaren zehaztapen ezak desorientazioa eta segurtasun eza handitzea dakarte eta, oro har, eremu ez-irigarriak dira.




5.8. Igarotze partekatuko Plataforma Bakarretako praktika txarren adibideak

25, 26, 27, 28 eta 29 irudietan ordenatu gabeko espazioak, plataforma bakarra ezartzeko eskatzen den bidearen zabalera baino handiagoa, seinaleztapenik eta orientazio-elementurik eza, askotariko ibilgailuen (baita garraio publiko kolektiboa ere) joan-etorria eta abar ikus daitezke.



25. irudia. Orientazioa errazten duten elementurik gabeko eta eremu seguruen bereizketarik gabeko espazio nahasia.





26. irudia. Bide arrunta ezartzeko eta edozein ibilgailu pasatzeko zabalera nahikoa, seinaleztapena gorabehera.





27. irudia. Garraio publiko kolektiboaren zirkulazioa.



28. irudia. Ibilgailuen zirkulazio nahasia.





29. irudia. Ohartarazpeneko seinalztapen-tartea gaizki jarrita.



IGAROTZE BEREIZIKO PLATAFORMA BAKARRAK. DISEINU ETA ERABILERA IRIZPIDEAK

Diseinua ez da justifikatuta egongo oinezkoen ibilbide irigarria ezar badaiteke. Kasu horretan, zintarriak jarri beharko dira, hori baita bereizlerik seguruen.

Igarotze bereiziko plataforma bakarraren proiektua bidearen zabalerak edo morfologiak galaraziko balu, gutxienez, hurrengo elementu hauek jarri beharko liriateke⁴:

6.1. Oinezkoen eta ibilgailuen eremua identifikatzea

Ibilgailuen joan-etorrietarako eremua oinezkoen eremutik testuran eta kolorean argi bereiziko da, galtzada gisa identifikatuta.




30. irudia. Ibilgailuen eta oinezkoen eremuak egoki bereiztea.

4 Espazio horien "ulermena" indartzeko "espalo" eta "galtzada" terminoei eutsiko zaie, nahiz eta zintaririk ez egon bereizle gisa.



Eremu bakoitzak (oinezkoentzako eta ibilgailuentzako) diseinu homogeneoa izango du ibilbide osoan zehar, bai zoladuran, bai altzarietan, biak bereizteko zailtasuna ekar lezakeen edozein elementu ekidinda.



31. irudia. Diseinu egokia, eremu bakoitzarekin zalantzarik gabe bereizita.



32. irudia. Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako eremuen arteko nahastea eragiten duen diseinu desegokia.



6.2. Bi eremuak mugatzea

Espaloia eta galtzada ohartarazpenaren adierazle den 40-60 cm-ko zabalerako ukipenez eta ikusiz hautemateko zoladura-tarte jarraitu batekin bereiziko dira, hiri-altzariekin uztartuta. Hala, ibilgailuek ezingo dute sartu oinezkoentzako segurtasun handiagoko eremura. Hiri-altzarietako elementuen arteko bereizketa ez da izango 120 cm baino handiagoa



33. irudia. Espaloia eta galtzada egoki berezita.



34. irudia. Ohartarazpen-zoladura bidezko mugaketarik gabe.





35. irudia. Ez dago galtzadaren zoladuren eta espaloien arteko bereizketarik.


6.3. Bidegurutzeak

Bidegurutzeak artekadun norabide-zoladura ezarrita seinaleztatuko dira, espaloien mugara bideratzeko.


Seinaleztapen hori bi espaloien artean lerro zuzenean jarriko da, eta nahastea eragin dezaketen trazadura diagonalak saihestuta.

Espaloien eta galtzadaren arteko bereizketa ukipenez eta ikusiz hautemateko ohararazpen-zoladurarekin eta nabarmen daitekeen kontrastearekin egingo da.





36. irudia. Seinaleztapenik eza.



37. irudia. Bidegurutzea egoki seinaleztatuta.





38. irudia. Norabide-zoladura egoki lerrokatua.

6.4. Seinaleztapen-sistema homologatua

Hainbat lekutatik ikus daitekeen seinaleztapen-sistema ulergarria (horizontala/ bertikala) ezartzea, gidariei eta oinezkoei baldintza hauen berri emateko:

- Baimendutako gehieneko abiadura.
- Zamalanetarako behin-behineko aparkatzeko baimenaren mugak eta baldintzak.
- Oinezkoen eta ibilgailuen igarotzearen arteko bidegurutzeen presentzia.





39. irudia. Igarotze bereiziko plataforman seinaleztapen desegokia; espazioaren erabilera partekatua iradokitzen du.



40. irudia. Ibilgailuei murrizketen berri ematen dien seinaleztapen egokia. Hala ere, ukipenez eta ikusiz hautemateko zoladurak ez du behar adina hiri-altzari mugatzaile.





41. irudia. Eremuaren eta aparkatzeko baldintzen berri egoki informatzen duen seinaleztapena. Hala ere, ukipenez eta ikusiz hautemateko zoladurak ez du behar adina hiri-altzari mugatzaile.

Arestian adierazi bezala, dokumentu honen helburua da irizpide batzuk eskaintzea, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak hiri-inguruneetan gero eta ohikoagoak diren espazioetan mugitzen direnean izan ditzaketen zailtasunak saihesteko.

Oro har, badirudi desnibelak gainditu behar ez izatea dela espazio horiek irigarritzat jotzeko ikusten den baldintza bakarra, espazio horietan mugitzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboak daudenean. Horregatik, funtsezkoa da dokumentu hau horrelako hiri-espazioen proiektuan eta eraikuntzan inplikaturako profesional guztiek ezagutzea, eta helburu horrekin egin da.

Beharrezkotzat jotzen da horiek ezartzeko eta arautzeko ardura duten administrazioek irizpide horiek baldintzat har ditzaten plataforma bakarren irigarritasunerako.



BIBLIOGRAFIA

Abel-Williamson, M. (2016)

Los espacios compartidos: documento de toma de posición de la Unión Mundial de Ciegos. Integración: revista sobre discapacidad visual, 69.

Deichmann, J., Winterberg, B., eta Bredmose, A. (S. f.)

Shared space-Safe space: meeting the requirements of blind and partially sighted people in a shared space.

S. l., Dinamarca: Rambøll Nyvig.

RACC Fundazioa (2008)

Criterios de movilidad: las zonas peatonales.

Bartzelona: RACC Fundazioa.

Fundosa Accesibilidad (2009)

Accesibilidad universal: requisitos de espacios públicos urbanizados, entornos edificados, transporte y comunicación.

Madril: AENOR.

Hirigintza Udal Kudeaketa (2000)

Instrucción para el diseño de la vía pública.

Madril: Madrilgo Udala.

Guide Dogs (2010)

Inclusive Streets: design principles for blind and partially sighted people.

Reading: The Guide Dogs for the Blind Association.

Guide Dogs eta Londresko University College (2008)

Testing proposed delineators to demarcate pedestrian paths in a shared space environment: report of design trials conducted at University College London Pedestrian Accessibility and Movement Environment Laboratory (PAMELA).

Reading: The Guide Dogs for the Blind Association.

Jiménez, D. (2015)

La rehabilitación de cascos históricos en clave de accesibilidad: la problemática de los espacios de plataforma única de convivencia. Jornada Tècnica sobre Accessibilitat a Vies i Espais Públics, FEMP.

Madril, 2015eko azaroa.

Jiménez, D. (2016)

La accesibilidad de los espacios de plataforma única de convivencia: análisis y clasificación de las soluciones existentes; avances y nuevos problemas; posibles parámetros e indicadores de accesibilidad.

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa. Argitaratu gabeko doktoretza-tesia.

Kisters, C., eta Montes, M. (2010)

Peatones y vehículos, una coexistencia necesaria: accesibilidad y modalidades de coexistencia de peatones y vehículos.

Hemen: F. Alonso (koord.), 132-154. or. Accesibilidad en los espacios públicos urbanizados.

Madril: Etxebizitza Ministerioa.

Uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua dela eta, irisgarritasuneko oinarrizko baldintzen eta hiriko espazio publikoen erabileran ez diskriminatzeko dokumentu teknikoa garatu da. Estatuko Aldizkari Ofiziala 187. zk., 2021eko abuztuaren 6koa, 96527. or.

Guía de Accesibilidad en los espacios públicos urbanizados V.1.0. Uztailaren 23ko Ministerioaren TMA/851/2021 Agindua aplikatzeko aholkuak direla eta, irisgarritasuneko oinarrizko baldintzen eta hiriko espazio publikoen erabileran ez diskriminatzeko dokumentu teknikoa garatu da. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak eta Idazkaritza Tekniko Nagusiak editatu dute, 31-34. or.

Perea, A., eta Garrido, E. (2014)

Guía recopilatoria de implementaciones en las zonas urbanas para mejorar la seguridad vial y la accesibilidad.

Madril: Bideko Segurtasunerako Espainiako Fundazioa.

Plataforma «Carrers per a tothom» (“Pertsona guztientzako kaleak”) plataforma 2015eko abendua.



[once.es](https://www.once.es)